

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

GIPIZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA

Maddi oso kontentu dago gaur eskola kirola duelako. Igerilekura joango da eta izugarri gustatzen zaio.



+to- BIZIPOZA

elkarlanean





Urritasunen
bat dutenentzat
ere oso garrantzitsua
da eskola-kirola. Baina
ohiko eskola-kirolean,
zuk egiten duzun horretan,
nekez moldatzen dira.
Horregatik dago Eskola
Kirol Egokituko
programa.

Urritasuna izan
arren, laguntzarekin eta
baliabide egokiekin denok
egin dezakegu
kirola.



Kirola egiteak
bizirik gaudela
sentiarazten digu.
Mesede egiten digu
gorputzean eta
umorean.



Taldean aritzeak
ere mesede handia egiten
digu. Lagunak lagunago
sentitzen ditugu elkarrekin
talde bezala aritzen
garenean.



Ze gauza
interesgarriak
kontatu dizkidazun.
Hori bai, gaur oso berandu
iritsiko naiz
eskola-kirolera.

Egia!
Segi, segi
azkar!



90029
gkef fgda

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa irabazi asmorik gabeko elkartea da. Bere erronka nagusia da buruko urritasuna edota fisikoa duten pertsonak kirol praktikara gerturatzea. Horretarako, pertsona bakoitzaren neurriko kirol eskaintza prestatzen saiatzen da.



Urte batzuetatik hona, Eskola Kirol Egokituko programa jarri du martxan. Hartara, dozena bat udalerritan eskola kirola egiteko adinean dauden hurrek aukera dute beren neurriko eskaintza jasotzeko. Astean bitan eta espreski horretarako prestatutako begiraleekin aritzen dira.



Portuetxe Kalea 23, B Ataria, 2 Solairua, 17 Bulegoa
(CEMEI Eraikuntza) 20018 Donostia
943 462514 / info@gkef-fgda.org